

# 2019/2023

## LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA

*Una legislatura que mira de frente al futuro* — 02or.

**TRIBUNA**  
Alderdien iritzia  
14or.

**ALBISTEAK**  
Actualidad tolosarra  
10or.

**AGENDA**  
¿Qué quieres hacer?  
15or.

2019-2023  
LEGEALDIRAKO  
KUDEAKETA PLANA  
PLAN DE GESTIÓN PARA  
LA LEGISLATURA

# NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

Udal egitura berria

e

I Ayuntamiento de Tolosa apuesta por una nueva organización para adecuarse a los nuevos tiempos, acelerar la toma de decisiones y agilizar el funcionamiento municipal, así como para dar a las y los tolosarras el servicio y la respuesta que se merecen.

La nueva estructura organizativa se presenta más transparente, ligera, eficaz, transversal, abierta y flexible, lo que permite optimizar los recursos municipales y dar pasos hacia una gestión más eficaz y transparente, que esté a la altura de las exigencias de la ciudadanía y de los nuevos tiempos.

En este sentido, el consistorio se divide en tres áreas: Organización, Ciudadanía y Territorio. Las Comisiones Informativas de cada una de las áreas se realizan una vez al mes y en las mismas se presentan los informes de gestión con la información relativa al mes que corresponde. Asimismo, las personas responsables y los técnicos de las áreas realizan reuniones semanales. También lo hace el Equipo de Dirección mixto, formado por personal técnico y político, que coordina las tres áreas.

Udal egitura berriaren aldeko apustua egin du Tolosako Udalak, garai eta behar berrietara egokitzeko, erabaki-hartzeak azkartzeko eta udal funtzionamendua arintzeko, betiere tolosarrei zerbitzu hobea, erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa emate aldera.

Ildo horretan, egitura berria hiru lan-arlotan ardatzen da: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurralde. Hiru esparrutako Batzorde Informatzaileak hilean behin ospatzen dira eta horietan hilabete horri dagokion Kudeaketa Txostena aurkezten da.

## 1 ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN



Giza-baliabideak  
Recursos humanos

Idazkaritza  
Secretaría

Herritarren Arreta Zerbitzua:  
Udate | Servicio de Atención Ciudadana: Udate

Ogasuna | Hacienda

Informatika  
Informática

Kontratazioa  
Contratación

Ondarea | Patrimonio

Udaltzaingoa  
Policía local

### HELBURUAK

Udal eraginkorra, erabakitzailea eta berdinzalea lortzea; udal ondareari balioa ematea eta hura erabilgarri jartzea.

Lograr un ayuntamiento eficaz, decisivo e igualitario; poner en valor y a disposición el patrimonio municipal.

## 2 HERRITARRAK CIUDADANÍA



Gizarte-Zerbitzuak eta Osasuna  
Servicios Sociales y Salud

Garapen ekonomikoa: enpleguaren sustapena, merkataritza, azokak eta turismoa | Desarrollo económico: fomento del empleo, comercio, ferias y turismo

Berdintasuna | Igualdad

Euskara | Euskera

Kultura eta festak  
Cultura y fiestas

Kirola | Deporte

Hezkuntza | Educación

Gazteria | Juventud

Komunitatea eta Gobernantza  
Comunidad y Gobernanza

### HELBURUAK

Herritarren babes soziala sustatzea; tokiko garapen ekonomikoa bultzatzea; herritartasun aktiboa sendotzea; herritarren ahalduntzea.

Fomentar la protección social de la ciudadanía; promover el desarrollo económico local; impulsar una ciudadanía activa; promover el empoderamiento de la ciudadanía.

## 3 LURRALDEA TERRITORIO



Hirigintza  
Urbanismo

Obrak eta zerbitzuak  
Obras y servicios

Trantsizio energetikoa  
Transición energética

Mugikortasuna  
Movilidad


Ingurumena  
Medioambiente

### HELBURUAK

Espazio publikoa eta udal eraikinak baldintza onenetan mantentzea; herriko irrisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea; hiri-berroneratze integratua bultzatzea; udalerriko ingurumen jasangarritasuna hobetzea.

Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones; mejorar la accesibilidad y movilidad del municipio; fomentar la regeneración urbana integrada; mejorar la sostenibilidad medioambiental del municipio.

### ANTOLAKETA-EGITURA



Zerbitzu hobea eta eraginkorragoa ematea ahalbidetuko du

# LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA

Plan de Gestión de la Legislatura

# U

dal egitura berria oinarri hartuta garatu da 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Plana. Plana garatzeaz politikari zein teknikoez osatutako lan-taldea arduratu da, alkatetzaren gidaritzapean.

Legealdirako Planak estrategikoak diren lan-lerro eta helburuak zehazten ditu, baita datozen lau urtetan garatuko diren ekintza eta proiektuak ere, Tolosatzen prozesuan landutako egitasmoen ahaztu gabe, herritarrekin partekatutako plangintza izan dadin.

Udalaren ibilbide-orria zehazten du planak eta udal jardura era ordenatuan eta logikoan antolatzen. Batetik, sail bakoitzeko helburuak ezartzen eta lehenesten ditu udal aurrekontuak erraztasun handiagoarekin egiteko aukera emanez, eta ekintzen betetze-maila neurtzea ere ahalbidetzen du. Bestetik, kudeaketa publikoan gardentasunaren eta parte-hartzearen adierazle ere bada.

Legealdirako Kudeaketa Plana ez da dokumentu itxia, zer garen eta zer izan nahi dugun ikuspegiari erantzuten dion plangintza da, zeinak helburu duen momentuko beharrei erantzutea eta proiektu estrategikoak garatzea, etorkizuna erdigunean jarrita eta, noski, tolosarrak ardatz hartuta.

El Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2023 se ha desarrollado tomando como base la nueva organización municipal. Un equipo formado por personal técnico y político se ha encargado de desarrollar el plan, proceso que ha sido liderado por alcaldía.

El Plan de Gestión para la Legislatura no es un documento cerrado, sino una planificación que responde a la visión de lo que somos y lo que queremos ser; un plan cuyo objetivo es responder a las necesidades del momento y desarrollar los proyectos estratégicos, con perspectiva de futuro.



## ¿Para qué sirve?

ZERTARAKO  
BALIO DU?

Udal baliabideak modu eraginkorra- goan antolatzen eta kudeatzen laguntzen du, udal jarduna planifikazio baten baitan kokatuz. Proiektuak eta lan-ildoak lehenesten ditu herritarren beharrei eta egungo zein etorkizuneko erronkei modu egokiagoan erantzuteko, etengabeko hobekuntzan oinarrituz, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

## Zer garen eta zer izan nahi dugun ikuspegiari erantzuten dion plangintza da

### MISIOA



Udal eskumenez baliatuz, herritarrei zerbitzu ona ematea, herritarren beharrak asetze aldera, une oro udal baliabideak modu eraginkorrean kudeatuz.

### BISIOA

Pertsonak erdigunean jartzen dituen herri-administrazioa eta eredia sustatzea tolosarrak udal jardunaren eta udalgintzaren erdigunean kokatuz, pertsonak baitira etorkizuneko Tolosaren oinarri nagusia.



### BALIOAK



Une oro herritarrekin zintzo jokatzeko konpromisoa hartzen dugu; gure jarduna elkarlanean oinarrituko da; eta udal baliabideak eraginkortasunez kudeatuko ditugu herritarren beharrak asetzeko eta ahalik eta zerbitzurik egokiena eskaintzeko.



Legealdirako Kudeaketa Plana osorik, klik batean!

[udala.tolosa.eus](http://udala.tolosa.eus)

El Plan de Legislatura define las líneas de trabajo y los objetivos estratégicos, así como las acciones y proyectos que se llevarán a cabo a lo largo de los próximos cuatro años. Recoge, además, los planes y proyectos trabajados en el proceso Tolosatzen, para que sea una planificación compartida con la ciudadanía.

En definitiva, el plan detalla la hoja de ruta del ayuntamiento, y organiza la actividad municipal de una forma ordenada y coherente. Se trata de una herramienta de trabajo útil que establece y prioriza los objetivos de cada área, facilita la realización de los presupuestos, y hace posible medir el nivel de cumplimiento de las acciones, además de ser señal de transparencia y participación en la gestión pública.

## Una administración más eficaz

Garai berrietara egokituko da udala ahalik eta modu eraginkorrenean eta egokienean herritarren eskaerei erantzuteko, zerbitzuen kalitatea ardatz hartuta. Horretarako, zenbait tresna jarriko dira martxan; batetik, udal egitura berria, eguneroko jardunean eraginkorragoak izate aldera; eta, bestetik, UDATE Herriarren Arreta Zerbitzu Integrala sendotuko da.



### UDATE

UDATEko arreta-zerbitzuak era integralean erantzungo die herritarren eskakizunei.

El ayuntamiento implanta una nueva estructura organizativa para mejorar el servicio prestado a la ciudadanía. También se reforzará el servicio de atención integral de UDATE.

## Pertsonak, ardatz



### EMARI

Gazte-ekintzaileen proiektuak abiarazteko coworking espazioaren alde egiten jarraituko du udalak.

### PROTECCIÓN SOCIAL

Ante el envejecimiento de la población, las necesidades de las personas mayores van en aumento y por tanto, garantizar el bienestar de las mismas es prioritario. Para ello se impulsarán nuevos programas y servicios en respuesta a las necesidades actuales y futuras. Por otro lado, se reforzarán las prestaciones sociales, la intervención comunitaria y la red de voluntariado.

### TOKIKO EKONOMIA

Hiri-ekonomia bere esparru orotan indartuko da; esaterako, industriaren eta tokiko enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza, ekintzailetza Emari Coworking-aren bitartez, merkataritza Tolosa&Co elkartearekin elkarlanean, azoka garai berrietara egokituta, eta turismoa hiri-ekonomia indartzeko aukera modura.

Udalak pertsonak kokatzen ditu erdigunean. Horregatik, udal proiektu orok herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea ditu helburu. Ildo horretan, Legealdirako Kudeaketa Planak gizarte-ongizatea bermatzea eta hobetzea lehenesten du, baita tokiko ekonomia sustatzea ere, garapen ekonomikoak ziurtatzen baitu ongizatea.

## Herri-elkarrizketa sustatzea, legealdi honetan, lehentasun

Lehentasuna izango dute datozen lau urteotan herritartasun aktiboa sustatzeak eta herritarren ahalduentzako komunitatea sendotzeko. Joan den legealdian abiarazitako partaidetza-bideei jarraipena emango zaie, herritarren eta udalaren arteko hartu-eman zuzena urte osora zabaltzeko eta harremana estutzeko. Herri-esperientziak partekatuko dira, eta trebakuntzan zein elkar-etzagutzan jarriko da arreta.

### CIUDADANÍA ACTIVA Y EMPODERAMIENTO DE LAS PERSONAS PARA FORTALECER LA COMUNIDAD

La formación y el empoderamiento son claves para lograr una ciudadanía activa. Por ello, dando continuidad a los procesos de participación puestos en marcha durante la pasada legislatura, con el objetivo de impulsar un diálogo fluido y una relación directa entre ayuntamiento y ciudadanía se pondrán en marcha nuevas iniciativas como Tolosatzen Escuela Abierta para compartir experiencias, capacitar a las personas en habilidades sociales y crear unos valores públicos compartidos y una agenda compartida por ayuntamiento, agentes y ciudadanía.



### EMAKUMEEN ETXEA

Politika-feministak bultzatzeko konpromisoa hartzen du udalak.

### GOBERNANTZA ORDENANTZA BERRIA

Gobernantza eredu berrietan sakontzeko eta herritartasun aktiboa sustatzeko, gobernantza ordenantza berria garatuko da.

### TOLOSATZEN AURREKONTUAK LANTZEKO METODOLOGIA BERRIA

Udalaren eta herritarren arteko elkarrizketa urte osora zabalduko da.



Udalerriaren etorkizuna irudikatzen jarraituko du udalak, lanketa kolektiboaren bitartez.

En estos cuatro años se apostará por el fomento de la participación y el empoderamiento de la ciudadanía.

# Un municipio amable, accesible y sostenible

Trantszio energetikoa, mugikortasuna eta irisgarritasuna ardatz estrategikoak izango dira legealdi honetan herritarrei herri atsegina, irisgarriagoa eta jasangarriagoa eskaintzeko. Begirada orainean eta bereziki etorkizunean jarrita, datozen belaunaldiak Tolosa hobeto eskaintzeko.



## ZUMARDI TXIKI

### Berreskuratzea\_Recuperación

Proiektua garatu eta gauzatu, aparkaleku-arazoari irtenbidea eman ondoren.

## RONDILLA

### Zaharberritzea\_Regeneración

Oinezkoek lehentasuna izango dute.

## ETXEBIZITZA HUTSAK I VIVIENDAS VACÍAS

### Birgaitzea\_Rehabilitación

Alokairu eskaintza handitzeko programa.

## KULTUR ETXEA, UDAL LIBURUTEGIA, MUSIKA ESKOLA I CASA DE CULTURA, BIBLIOTECA MUNICIPAL, MUSIKA ESKOLA

### Berrantolatzea\_Reorganización

Espazioak beregokitzeko proiektuak.

## USABALGO 3. FASEA

### TERCERA FASE DE USABAL

Azpiegitura berrien sustapena.

## APARKALEKUAK I APARCAMIENTOS

### Azterketa\_Estudio

Beharren azterketa egin eta irtenbideak proposatu.

## GORRITI PLAZA ETA SAN ESTEBAN

### Berroneratzea\_Regeneración

Eremuak txukundu eta biziberritu.



Pertsonak erdigunean kokatzen dituen Tolosa eraiki nahi da, arduratsuagoa, jasangarriagoa, eta ingurumenarekin konprometituagoa.

## ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO PLANA

### PLAN CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO

Trantszio energetikoaren aldeko erabakiak: ibilgailu elektrikoek sustapena eta kargarako puntuak ezartzea.

## ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ENERGÍAS RENOVABLES

Eguzki-panelen kokatzea udal eraikinetan.

## MUGIKORTASUNA ETA IRISGARritasuna MOVILIDAD Y ACCESIBILIDAD

Oinezkoek lehentasuna eman eta mugikortasun eredu alternatiboak sustatu.

## MANTENTZE-LANAK

### TRABAJOS DE MANTENIMIENTO

Espazio publikoak eta udal eraikinak baldintza onenetan izatea.

## LANDA-EREMUAREN ETORKIZUNA FUTURO DEL ENTORNO RURAL

Ondare naturalaren eta landa-inguruarenean babesa eta etorkizuna bermatzeko azterketa.

## KONTSUMO ARDURATSUA ETA HONDAKINAK CONSUMO RESPONSABLE Y RESIDUOS

Hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko kanpainak eta hondakinudeaketa hobetzeko erabakiak hartzea.

Se tomarán medidas para impulsar una Tolosa pensada para las personas, más responsable, sostenible y comprometida con el medio ambiente.

# AZKEN BERRIAK

Actualidad


## ALONDEGI PLAZAK ESTALKI BERRIA DU

*Nueva cubierta en Alondegi plaza*

Udalak Alondegi plazan 335 m<sup>2</sup> di-tuen estalki berria kokatu du merkataritza sustatzeko, herritarrei egun euritsueterako espazio estalia eskaintzeko, eta, bereziki, Alde Zaharretik kanpo ere jarduerak antolatzeko.

Con el objetivo de revitalizar el comercio y expandir las actividades a otras zonas del municipio, el Ayuntamiento ha construido una cubierta de 335 m<sup>2</sup> en Alondegi plaza.

DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETARI BURUZKO IKASTAROAK, HERRIKO ELKARTE ZEIN TALDEENTZAT



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Tolosako Udalak lau saioko ikastaroa antolatu du abenduan, diru-laguntzen kudeaketa-alorrean, prozedurei buruz egon zitezkeen zailtasunei erantzuna emateko. Ikastaroan, batik bat, Tolosako talde zein elkarteek hartu dute parte.

## HAURREN ESKUBIDEEN DEFENTSAN LANEAN

Haurren Eskubideen Hitzarmena sinatu zenetik 30 urte bete dira, eta Unicef erakundeak abian jarritako 'Urdinez Margo Gaitzen' egitasmoarekin bat egin du Tolosako Udalak Zerkausia eta Topic museoa urdinez argizatuz. Haurren Hiria egitasmoan parte hartzen ari diren haurrek "Giza Eskubideen Nazioarteko hitzarmena" landu eta aurkeztu zuten azaroko Osoko Bilkuran.



## A25 INDARTSUA, TOLOSAN


*Un 25N sonado en Tolosa*

Gizarte berdinzaleagoa eta parekideagoa eraikitzeko helburuarekin, egitarau oparoa antolatu du Tolosako Udalak azaroak 25 egunaren harira, herriko hainbat eragilerek elkarlanean. Esaterako, 'Hi haiz hi' jaialdia eraberritu da, 'Hankaz gora margotu dezagun mundua' izenburupean; 'Pelusa' kontzientziazio kanpaina jarri da abian emakumeen sexualitatea lantzeko; batukada feministak kaleak girotu ditu, emakumeenganako kontrako indarkeria salatzen flashmoba ere egin da urtero legez, eta egitasmoari bukaera emateko, elkarretaratzea, Plaza Zaharrean.

Con el fin de construir una sociedad más igualitaria y paritaria, el Ayuntamiento ha llevado a cabo un programa muy completo con la colaboración de distintos agentes de Tolosa, con motivo del día 25 de noviembre.

Entre otras actividades, destacan el renovado festival 'Hankaz gora margotu dezagun mundua', o la campaña 'Pelusa'.

SEINALE BERRIAK BEOTIBARREN, PILOTALEKUAREN IRISGARRITASUNA ETA SEGURITASUNA HOBETZEKO



Braille hizkuntzan zein erliebean idatzitako seinaleak kokatu dira Beotibar pilotalekuan, lurreko bandak berritzeaz gainera, eskailerak, arrampak, igogailuak eta koxkak non dauden zehazteko, eta behar bereziak dituzten pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.

## ELIKADURA-OHITUREK EKONOMIA ZIRKULARREAN DUTEN ERAGINA AZTERTU DUTE TOLOSAKO IKASLEEK

*El alumnado de Tolosa estudia el impacto de los hábitos alimenticios en la economía circular*

Dentro del proyecto Agenda 21 escolar, y en el marco de la Semana de la Sensibilización sobre los Residuos, el alumnado y profesorado de los centros escolares de Tolosa analiza cómo afectan los hábitos de alimentación y de consumo en la economía circular.

Eskola Agenda 21 proiektuaren baitan, elikadura- eta kontsumo-ohiturek ekonomia zirkularrean nola eragiten duten aztertu dute Tolosako ikastetxeetako ikasle zein irakasleek, Hondakinen Prebentziorako Astearen baitan.

**'Egin on eta on egin'**

Bestalde, elikagaien xahuketa saihesteko, 'Egin on eta on egin' egitasmoa aurkeztu zuten Tolosaldeko hainbat ostalarik. Biodegradagarriak diren ontziak banatzen ari dira eskualdeko 16 taberna eta jatetxetan bezeroek jan gabe utzitako elikagaiak etxera eraman ditzaten.



**'Egin on eta on egin' evita el despilfarro de alimentos con la entrega de un envase biodegradable en los restaurantes para llevar a casa la comida que sobra en el plato**

## EMAKUMEEN ETXEAREN DEFINIZIOA AMAITZEAR DIRA PARTE-HARTZE PROZESUKO KIDE DIREN EMAKUMEAK



2016an ekin zion Tolosako Udalak Emakumeen Etxea proiektuaren defentsari, etxearen printzipioak, nolakotasuna, erabilera, helburuak eta jarduerak definituz, emakume-sareak eraikiz, ahaldunduz, eta eraldaketa sozialerako tresnatzat ulertuz. 2019ko aurrekontu proposamenean, Udal Gobernuak **280.000 euroko diru-partida aurreikusi du Emakumeen Etxearen proiektua aurrera eramateko.**

## ETXEBIZITZA HUTSEN INGURUKO AZTERKETA EGIN DU UDALAK

*El Ayuntamiento realiza un estudio en relación a las viviendas vacías*

Tolosako Udalak etxebizitza hutsen eta etxebizitza beharren inguruko diagnostia egin du, bisitak eta elkarrizketak eginez, jakiteko zergatik ez diren merkaturatzen hutsik dauden etxebizitzak.

Bildutako informazioarekin, lan-lerro berriak definituko dira eta udalak jada martxan duen etxebizitzak hutsak birgaitzeko programa berregokituko da atzemandako beharrei erantzun ego-kiagoa emateko eta bereziki, ahalik eta etxebizitza kopururik handiena alokairuan jartzea lortzeko.

El Ayuntamiento de Tolosa ha llevado a cabo un diagnóstico sobre las viviendas vacías del municipio, realizando visitas a las viviendas y entrevistando a las personas propietarias a fin de conocer por qué no han sido puestas en alquiler.

El principal objetivo del estudio es definir nuevas líneas de trabajo con el objeto de que el mayor número posible de los inmuebles sean puestos en alquiler.



## KARGARAKO SISTEMA ELEKTRIKOA DUTEN KAMIOI BERRIAK, HONDAKIN BILKETARAKO

Hondakin bilketarako kamioi berriak izango ditu Tolosaldeko Mankomunitateak, kamioi flota guztia berrituz: 16 kamioi eta hornidura osagarri berria, besteak beste, edukiontzien mugimendua egiteko kamioneta, jarraipeneko bi ibilgailu, edukiontzi berriak eta horien garbiketa eta mantenua egiteko furgoneta. Beraz, hondakin bilketaz gain, edukiontzien mantenuaz ere arduratuko da enpresa esleipenduna. Guztira, 2.682.177,67 euroko inbertsioa egin da. Hondakin bilketarako kamioi berriei elektrorako trantsizioa eta urratsa egingo da, alboko kargarako sistema elektrikoa izango baitu.

## CHARLEVILLE-MÉZIÈRES-EKO GAZTEEKIN IKASLE-TRUKEA EGIN DU TOLOSAK



**Tolosako eta Charleville-Mézièreseko Udalek duten senidetze-hitzarmena dela-eta, azaro bukaeran Frantziara bidaiatu zuten Tolosako ikastolako eta ikastetxeetako DBH 4. mailako zein batxilergoko ikasleek, bi herrien arteko elkar-egazutza bultzatzea eta hizkuntza-gaitasunak hobetzea helburu duen programaren baitan.**

## UDAZKENA, AZOKA BEREZIEEN SASOIA

**Arrakasta handiarekin agurtu ditu Tolosak 2019ko azoka bereziak. Txanpiñoekin hasiz, gozoarekin eta babarrunekin jarraituz eta gabonetakoarekin bukatuz, bisitari asko jaso ditu Tolosak azoka berezi horien aitzakian.**



### Mikologika

X. Mikologika berrikuntzez betea etorri da; saltsan egindako munduko txanpinoi kazola handiena prestatu zuten Casino elkarteak zenbait kidek, guztira, 250 kilo txanpiñoi, 40 litro olio eta 40 ardo botilarekin prestatuta, 2,5 metroko ontzian. Bestalde, Txanpi On Fest egitasmoa Zumardi Txikira zabaldu zuten, janari-postuekin eta zuzeneko musikarekin.

### Goxua

Trianguloak 24 gozogileren erakusmahaiak bildu zituen herritarrek mota guztietako gozo eta pastelak dastatzeko. Eta ez hori bakarrik; Eceiza, Gorrotxategi, Gozona, Leioko-Gorosti eta Saizar gozotegietako kideekin batera hainbat gaztetok 5.000 erroskilla banatu zituzten.

### Babarrunaren Festa

Urtez urte berritzen eta indartzen joan den festa da babarrunarena. Tolosako Babarrunaren Elkartearentzat urte berezia izan da, 25. urteurrena bete duelako. 2019ko babarruna aurrekoa baino hobea atera da, eta, aurten, 20.000 kg baino gehiago bildu dira.

### Gabonetako azoka

Bertakoentzat kuttuna eta bisitariarentzat erakargarria den Eguberrietako azoka bereziak eremu zabaleko merkatu bilakatu zuten Tolosa giro musikatuan, Zerkausiko, eta Berdura eta Euskal Herria plazetako larunbateroko ohiko postuekin, eta 80 saltoki gehiagorekin.

**El servicio en Udate será más personalizado y se disminuirá el tiempo de espera.**

## UDATE ARRETA-ZERBITZUA LANPOSTU GEHIAGOZ HORNITU DA

*Más personal en Udate para mejorar el servicio prestado*

Herritarren arreta hobetzeko, eta itxaron-denborak murrizteko, Udate arreta-zerbitzuak langile gehiago ditu orain. Hemendik aurrera, herritarrek tramite guztiak bertan egiteko aukera dute: eskaerak, erregistroak, baimenak, lizentziak, instalazioen erreserbak, iradokizunak, diru-laguntzen tramitazioa, errolda, tasa eta zergen kudeaketa, eta abar.

Con el fin de mejorar el servicio prestado a la ciudadanía y disminuir el tiempo de espera, el servicio de atención Udate cuenta ahora con más personal. A partir de ahora, la ciudadanía podrá realizar todos los trámites in situ.



# TRIBUNA

## Alderdien iritzia



### Orainari eta etorkizunari erantzunez.

Garai berriek gobernantza eta kudeaketa eredu berriak eskatzen dituzte. Helburu horrekin, legealdi hasiera honetan lan tresna berriak jarri ditugu martxan eraginkorragoak izateko, erabaki hartzeak azkartzeko, udal funtzionamendua arintzeko eta bereziki, tolosarrei erantzun eta zerbitzu hobea emateko.

Jada egitura berriaren baitan lanean ari gara eta prest dugu Legealdirako Kudeaketa Plana; ziur gaude eragin-kortasunaren alde urratsak egiteko baliagarriak izango zaizkigula, egungo zein etorkizuneko beharrei eta eronkei aurre hartu eta aurre egiteko, orain arte bezala tolosarrekin elkarlanean, gertutasunetik, etorkizuneko Tolosa elkarrekin marraztea ezinbestekoa delako.

Hemos considerado necesario dar pasos hacia una mayor eficiencia en la gestión para responder de forma más adecuada a la realidad actual y a las necesidades de las y los tolosarras; la nueva estructura organizativa y el Plan de Gestión nos ayudarán a optimizar los recursos, agilizar el funcionamiento interno y detectar los aspectos a mejorar, todo ello para ofrecer un servicio de calidad a la ciudadanía.



Legealdi hasieran giltzarriak diren gaiak eta proiektuak mahai gainean jarri ditugu EH Bildutik, elkarlanerako jarrera irekia adierazita. Klima aldaketari aurre egiteko ekimen zehatzak proposatu ditugu: energia berriztagarrien erabilera arautuko duen ordenantza egitea; trantsizio energetikorako laguntzak handitzea; herritarrok heztea klima aldaketan eragiten duten faktoreak zein diren jakin eta erantzuteko; autobus publikoa elektrikoa izatea eta honen erabilera sustatzea; eta herriko mugikortasun paradigma aldatzen hastea lehenetsuna oinezko eta bizikletak izan dezaten.

Tolosa bizigarriagoa egiteko nahi horretan Zumardi Txikiak garrantzia handia du. Bestetik, merkataritza eta azoka indarberritzeko neurriak hartu behar ditugu, bertako produktuak eta bertan erosteko duen garrantzia azpimarratuz. Emakumeen etxearen proiektua aurrera ateratu behar da. Ospitale publikoa egiteko pausuak azkartu nahi ditugu. Alokairu sozialeko pisu gehiago eskaintzeko neurriak martxan jarri behar dira... Ideiak eta indarra soberan ditugu eta buru belarri lanean ari gara Tolosa hobe baten alde.



2019. urtean haustekundeak uda gobernu berriaren osaketa ekarri zuen. PNV eta PSE.EE legealdi osorako akordio bat sinatu zuten eta honen ondorioa da emandako bi pauso hauek: Legealdirako kudeaketa plana eta 2.020. uretarako aurrekontuaren onarpena.

El gobierno de Tolosa está constituido por PNV y PSE.EE tras la firma de un acuerdo de gobierno que se vertebrará en las políticas sociales, la rehabilitación de calles y edificios públicos, la creación de nueva vivienda, pública especialmente, y medidas a favor de la transición energética.

Akordio honen ondorioa Legealdi osorako (2019-2023) kudeaketa planaren garapena izan da, non hurrengo lau urterako helburu eta proiektu guzti zehazten diren, epeak eta aurrekontuekin batera.

Es en este contexto se entienden los presupuestos aprobados por PNV y PSE.EE para el 2020, que ascienden a 29.185.229 euros. Son unos buenos presupuestos porque están basados en el acuerdo de gobierno y en el plan de gestión para la legislatura.

# AGENDA

Agenda osoa ikusgai: [agenda.tolosa.eus](http://agenda.tolosa.eus)



11  
URTARRILAK

Goazen 6.0 musikala  
16:00etan eta 18:00etan, Leidorren



17  
URTARRILAK

Benito Lertxundiren kontzertua  
20:30ean, Leidorren.



18  
URTARRILAK

Ataria Bertso Jaialdia  
18:30ean, Leidorren.



24  
URTARRILAK

Haatik taldearen 'Errimak bi oinetan' dantza emanaldia  
18:30ean, Leidorren.



29  
URTARRILAK

'La Boheme' operaren zuzeneko proiektzioa  
18:30ean, Leidorren.



# U DATE

## SERVICIO INTEGRAL DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA

### INFORMAZIO ETA TRAMITEAK ESKU-ESKURA:

DOKUMENTUEN ERREGISTROAK, ERROLDA ZIURTAGIRIAK,  
BAIMENAK, DIRU-LAGUNTZAK, AGIRIAK...

ARRRETA ZERBITZU INTEGRALA, ARINAGOA,  
ERAGINKORRAGOA, HERRITAR GUZTIONTZAT.



ZATOZI!



Plaza Zaharra 6A  
20400 Tolosa, Gipuzkoa  
T 943 65 44 66  
update@tolosa.eus

Ordutegia:  
Astelehen, astearte, asteazken  
eta ostiraletan: 07:15-14:15  
Ostegunetan: 07:15-19:00